



BARREN  
TOKIKOM

# Ametsa, amesgaizto

Hassan El Boujddaini





# BELAUSTEGI BASERRIA

— Jatetxea —

## 22. URTEURRENA

Eskerrik asko elgoibartarroi!

Belaustegiko familia osoaren partez, **mila esker elgoibartar guztioi.**  
Zorionekoak gara, egoera honetan ere, gure alboan zaituztegunako.







JOSE LUIS MUGERTZA

Idazlea

## Elgoibar ahotan

gehiago ikastea nahi dut. Jakin ezean, lasai, erantzunak behean izango dituzue-eta. Prest?

1. Erdi Aroko agirietan Markina de Yuso zuen izena gure herriak; gerotxogo, Villamayor de Markina, baina zer esan nahi du gaztekeraz? 2. Nor zen 1844an Elgoibarren jaio, eta Mendaron hil zen apaiz-idazlea? 3. Zer enpresa egon zen herriko antzokiaren parean, gero gaztetxea izan zena? 4. Elgoibarrek zenbat baserri auzo ditu? 5. San Frantzisko iturriaren alboan, zer zegoen 50eko hamarkadan? 6. Nongo ura da Elgoibarko txorrotetatik irteten dena? 7. Zenbat lagun fusilatu zituzten

***“Elgoibarko antzinako kontuez mintzatzeko etorri naitzaizue gaur, edo hobeto esanda, galdetzera”***

gerra zibilean? 8. Nork egin zituen Bilboko Jesusen Bihotza eta Erorien Harana? 9. Zer urtetan ikusi genuen estreinakoz gure herrian telebista? 10. Zer izen du San Migel auzoan jaio, eta Lerun inguruan hiltzen den erreka? 11. Elgoibarko zein pintorek izan ditu pintura galeriak New Yorken eta Parisen? 12. Zein kaletan zegoen “Cine de la Petra”? 13. Zein da Elgoibarko jan-edaneko elkarterik zaharrena? 14. Euskal Herriko, zein hiriburutan dago Elgoibar izeneko kale bat? 15. Zein da San Antolin auzoaren jatorrizko euskal izena?

Ez dira oso zailak izan, ezta? Bada, hurrengo batean gehiago.

1. Vega del Campo. 2. Pedro Migel Uruzuno. 3. Jarbe. 4. (7). 5. Gasolindegia. 6. Kilimongoa. 7. (19). 8. Pedro Mugaruzak. 9. (1960an). 10. Morterikak. 11. Luzianok. 12. Errosario kalean. 13. Biardana. 14. Donostian. 15. Arriaga.

**A**rupeetakook, aurrera mesedez, eta eutsi tarteari. Eskilara mailetan hobeto, ezta! Ez dakit zue-tako baten batek ezagutuko nauen musukoa jantzita. Gainera, gehienok oso gazteak zarete, eta... Ni BARREN baino lehenagokoa naiz, eta Txitxilibakio dut izena. Oso gizon behartsua nintzen, eta oso itxura baldarra nuen. Hori zela-eta, orduko gurasoek seme-alabak beldurtzeko “Txitxilibakio etorriko da!”, esaten zuten. Baina, tira, horiek aspaldiko kontuak dira, nahiz eta ni Elgoibarko antzinako kontuez ere mintzatzeko etorri naitzaizuen, edota hobeto esanda, galdetzera. Izan ere, guztio herriaren gainean, zer edo zer,



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edune Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



## *Antonio Garrido de Dios*

2021eko ekainaren 8an hil zen, 73 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.


***Betirako izango zaitugu gogoan.***

Fernandez de Jauregui familia



## *Begoña Gil Altuna*

2021eko ekainaren 9an hil zen, 60 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Begoña Gil Altuna*

2021eko ekainaren 9an hil zen, 60 urte zituela.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna  
betirako izango dira gure artean.***

Pikupe kuadrilla



XXV. URTEURRENA

## *Iñaki Intxausti Larrañaga*

1996ko ekainaren 8an hil zen.

***25 urte igaro dira, asko dira,  
baina beti egongo zara gure bihotzean.  
Oso erraza izan zen zu maitatzea,  
baina ezinezkoa ahaztea.***

Etxekoak.







Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Komuna bidegorriaren hasieran jartzeak ez dauka zentzurik:** “Baina nola da posible bidegorriaren hasieran jartzea komuna? Elgoibartarrentzat komun horrek ez dauka zentzurik, eta gainera, Sigmako probalekuan ere badago komuna. Ibilaldiaren hasieran edo bukaeran aurkituko dute, etxetik irten berritan edo etxera iristear daudenean. Komuna ibilbidearen erdian behar zen, oinezkoak oraindik etxetik urrun dauden lekuan, hain zuzen ere. Ezin al dute erdibideko kokalekuren bat adostu Eibarko eta Elgoibarko Udalek?”. Udaleko Hirigintza Saitetik eman dituzte erabaki honen azalpenak: “Bidegorrian komuna ipintzeko hainbat baldintza bete behar ditu tokiak. Hasteko, erreka ertzetik 5 metroko erretiroa eskatzen du URA Ur agentziak. Bestalde, argia, ur hornidura eta saneamendurako konexioa bermatu behar dira. Hainbat kokapen aztertu dira, eta beste toki batzuk gehiago gustatzen bazaizkigu ere, ez dituzte eskatutako baldintzak betetzen”.




**Idotorbeko frontoi inguruan kristal asko dago:** “Idotorbeko frontoi inguruan apurtutako edalontziak egoten dira sarri, eta oso arriskutsua da. Duela hamar bat egun 3 urteko ume batek min hartu zuen kristalarekin, eta hainbat puntu eman behar izan zizkioten zauria ixteko. Herritarrei ingurumena zaintzeko eskatu nahi diet, eta bide batez, gainerako bizilagunekiko errespetua. Denok bizi behar dugu, ingurunea konpartitu behar dugu eta ez da bidezkoa aisialdiaz gozatzerara joan eta ingurunea horrela topatzea”.



**Mintxetako futbol zelai guneko tabernak zer-gatik ez dauka gainerako ostalaritza establezimenduen ordutegi berbera?** “Igerilekuetatik irten ondoren jende askori gustatzen zaigu tabernan zerbait hartzea etxera joan aurretik, eta aurten esan digute taberna 20:00etan itxiko dutela. Afaltzeko ere gune aproposa da Mintxeta, baina ordutegi horrek ez du afaltzeko aukerarik ematen”. Udal Kirok Patronatuarekin jarri gara harremanetan, eta ondorengo erantzuna eman digu Ramon Mugica zuzendariak: “Mintxetako taberna kirol instalazioak eskaintzen duen zerbitzua da, eta horregatik, instalazioaren ordutegira egokitu behar da: Asteleheneretik ostiralera 9:00-21:00 eta astebukaeratan 9:00-20:30 da instalazioaren ordutegia, eta ondorioz, tabernarena ere bai. Taberna beranduagorarte irekita egongo balitz, ez litzateke egongo instalazioan arduradunik, horrek eragin ditzakeen ondorioekin. Irailtik aurrera, Mintxetako instalazioen ordutegia ohikora bueltatzen denean, 22:00etan itxiko da taberna asteleheneretik ostiralera, eta asteburuetako ordutegia partiden eta bestelako jardueren ordutegira egokituko dugu”.

## IMH sariak banatu dituzte aste honetan



Heziketa Zikloetako ikasleen ikasturte amaierako ekitaldia egin dute IMHn, eta IMH sariak ere banatu dituzte. Covid-19aren ondorioz, aurten ere, amaiera ekitaldi bakarra egin beharrean, taldeka elkartu dira ikasleak beraien tutoreekin, urte guztian ezarritako burbuilak mantentzeko.

IMH Sarietako dagokionez, Arkaitz Altzibar Eizagirre zumaiarra izan da aurtengo Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasle aipagarria. Fabrikazio Mekanikoaren Programazioaren Programazioa ikasi du, eta lan-praktikak Itziaroko enpresa batean egin ondoren, bertan jarraitzen du lanean. Erdi Mailako heziketa zikloetan, berriz, Alberto Arribas Luque soraluzearra izan da aurtengo ikasle aipagarria. Mekanizazioa ikasi du, eta praktikak Bergarako enpresa batean egin ondoren, goi-mailako ziklo bat ikasten jarraituko du. Eta aurtengo ikasle elgoibartar aipagarria Hodei Lemos Bao izan da. Mantentze Lan-elektromekanikoa ikasi du, eta berak ere goi-mailako zikloa ikasten jarraituko du. Hodeik Elgoibarko Udalaren oroigarria jaso zuen sari banaketa ekitaldian. Saridun bakoitzak 150 euroko boltsa jaso du.

## Autodefentsa feminista, Mendaron

Autodefentsa feministari buruzko bi saio izango dira Mendaron, gaur lehenengoa eta datorren barikuan, bigarrena. Emagin elkartekoek emango dituzte saioak, eta besteak beste, jarrera matxistak identifikatu eta haiei aurre egiteko tresnak aurkeztuko dituzte. Emakumeek euren bizipenak partekatzekeo gunea ere sortu nahi dute. 17:00etatik 20:30era izango dira saioak, elebitan. Interesatuak udalarekin bertan edo [www.mendaro.eus](http://www.mendaro.eus) atarian eman behar dute izena.

## Liburu feministen katalogoa osatu dute

Udaleko Berdintasun Sailak eta Elgoibarko Udal Liburutegiak liburu feministen katalogoa osatu dute. Udako oportunitate irakurtzeko hainbat proposamen feministak batu dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz, eta beste hainbat libururen artean, Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* liburua sartu dute.

## Mintxetako berdegunea urte osoan zabalik edukitzeko proiektua bideragarria izan dadin lanean jarraituko duela dio EH Bilduk

Elgoibarko EH Bilduk Mintxetako berdegunea urte osoan aisialdirako zabalik edukitzea proposatu zuen, baina Kirol Patronatuak baztertu egin du aukera hori, "eremuak ez dituelako betetzen horretarako segurtasun, zerbitzu eta azpiegitura baldintzak". EH Bildukoek esan dute euren proposamenak babes handia izan duela modu publiko zein pribatuan, eta babes horrek hauspotuta, proiektua bideragarri egiteko lanean jarraitzen dutela. Patronatuaren erabakiaren harira, Udal Gobernuak ordezkariak eginiko adierazpenek "tristura" eragin dietela esan dute. "Udal Kirol Patronatuak ez du inolako ebazpenik eman. Maiztzekeo Kirol Patronatuko bileran txosten teknikoak aurkeztu zen, non proposamenak zituen zailtasunak aipatzen ziren, baina ez zen bozkatu, eta inork atek itxi baditu, hori EAJ izan da. Ateak ixten dizkiolako elkarriketari". Gai hau lantzen jarraitzeko prest dagoela adierazi du EH Bilduk, eta asmo horretan beste herri batzuetako arduradunen eta igerilekuetako erabiltzaileen iritzia jaso dituztela jakinarazi du. "EAJk aipaturiko "zailtasunak" banan banan erantzun dituzte, eta horiei buruz berba egiteko prest agertu dira, uste dutelako proiektu honek onurak besterik ez dizkiela ekarriko elgoibartarrei. Mintxeta Atletismo Taldeak eginiko lanari aitortza ere egin dio EH Bilduk: "Beraien lanari esker dagoelako Mintxetako berdegunea dagoen egoeran, urte osoan zehar, duela 20 urtetik hona".





## Barikutik itxita egon ostean atzo zabaldu zuten berriro Egoibarko Eguneko Zentroa

Eguenetik barikurako gauean ura sartu zen Elgoibarko eguneko zentrorra goiko terrazatik, eta ondorioz, Uparitzaga kaleko lokala itxita izan dute atzo arte. Bariku goizean bertan jakinarazi zieten erabiltzaileei gertatutakoa, bai eta egun horretan zerbitzurik ezin izango zietela eman ere. Astelehenean, baina, Eguneko Zentro zaharrean jaso zuten zerbitzua Elgoibarko hogei erabiltzaileek, San Franzisko kaleko hamaikagarren zenbakian, eta hiru egunez hara joaten egon dira, harik eta itokinak eragin zituen ur ihesen arazoa konpondu duten arte.




### Gazteak Auzolanean beka

*Izango zara* programaren barruan, gazteei zuzendutako beka sustatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamentuak. 18 eta 30 bitarteko hiru laguneko taldeek parte hartu dezakete programa honetan, eta bekaren bidez, interes publikoa duten eta gazteek garatzen dituzten eraldaketa sozialerako prozesuak bultzatu nahi dituzte. Guztira, 24.500 euroko laguntza emango dute. Diru horren bidez, gazteen talentua sustatu nahi dute, uste dutelako faktore ezinbestekoa dela kritikotasuna sustatzeko. Eskabideak aurkezteko azken eguna ekainaren 14a izango da eta eskaerak Internetez aurkeztea hobesten da. Informazio gehiagorako honako webgunean sartu zaitezke: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/gazteak-auzolanean>.



### *Gloria Osoro Aguirrebeña*

2021eko ekainaren 6an hil zen, 87 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



VI. URTEURRENA

### *Garbiñe Iriondo Aristondo*

2015eko ekainaren 13an hil zen.

***Izan zarena, erakutsi duzun kemena,  
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



## Herri hobeak egiteko proposamenak egin dituzte eskola-umeek

**Ekoizpen eta kontsumo arduratsuaren gaia landu dute aurten Debabarreneko eskola-umeek Eskolako Agenda 30 programaren barruan, baina pandemia dela-eta, aurten ezin izan dituzte euren ekarpen eta proposamenak udalbatzarretan aurkeztu. Horren ordez, bideo bana grabatu dute umeek dagokien udalerriko udalei aurkezteko, eta udalek beste bideo batekin erantzun diete. Hona hemen haurrek egin dituzten proposamenetako batzuk, eta jaso dituzten erantzunak:**

### ELGOIBAR

- **Elgoibarko erdiguneko gune batzuetan (Bernardo Ezenarro, Aita Agirre plaza...) zenbait aparkaleku auto elektrikoentzat gordetzea.** Hirigintza Saileko zinegotzi losu Arraizek erantzun die 2011. urtean zazpi gune jarri zituztela auto elektrikoak berriz kargatzeko, baina gerora hainbat gune kendu egin zituztela, "ez zutelako erabilerarik izan", baina oraindik mantentzen dituztela beste batzuk.
- **Plastikoaren erabilera murrizteko neurriak hartzea:** Arraizek erantzun die egin izan dituztela kanpaina batzuk plastikoaren erabilera murrizteko. Duela urte batzuk, tupperrak erabiltzeko kanpaina sustatu zutela aipatu die, eta gerora, banatu zituztela poltsa bererabilgarriak eta egin zituztela saskiak erabiltzeko kanpainak ere.
- **Udaletik bidaltzen duten informazioa modu digitalean bidaltzea, paperaren erabilera murrizteko.** Ane Beitia alkateak erantzun die duela pare bat urte hasi zela Udala horretan eta saiatzeko ari direla paperaren erabilera murrizten.
- **Bidegorrian dauden landare eta arbolen izenak eta haien ezaugarriak egurrezko paneletan jartzea eta Qr kode bat gehitzea.** Alkateak erantzun die oso proposamen interesgarria iruditzen zaiela Deba ibaiaren bueltako bioaniztasuna modu horretan jasotzea eta iruditzen zaiela Foru Aldundiarekin batera lantzeko kontua dela. Elkarlana bilatuko dute.
- **Bidegorrian komun eta zaborrontzi gehiago jartzea.** Hirigintza zinegotziak erantzun die Udalaren konpromisoetako bat izan dela bidegorrian komuna jartzea, eta aitortu die uste baino gehiago kostatu zaiela ura, argindarra eta saneamendu arazoak konpontzea, baina lizitazioa martxan dela. Zaborrontzi gehiago jartzeko eskaera, berriz, Foru Aldundira zuzenduko dutela esan die, haiei dagokielako bidegorriaren mantentze lanak kudeatzea.
- **Auzo guztietara heltzen den autobus urbano elektrikoa jarri eta Herri Eskolara joaten den igogailua jarri.** Urazandiko igogailua martxan dela gogorarazi die alkateak eta udalbusarekin auzoetarako irisgarritasuna "bermatuta" dagoela. Era berean esan die saiaturiko direla urtez urte berrikuntzak ezartzen.



- **Herriko nekazarien kontsumoa eta kontsumo ekologikoa sustatzeko kanpainak martxan ipintzea eta laguntzak ematea: azoka gehiago antolatzea eta baserrietara bisitak sustatzea, adibidez.** Udaletik erantzun diete hainbat azoka egiten dituztela urtean zehar, herriko baserrietako produktuei bidea emateko eta saiatzeko direla azoka horiek hobetzen bertako ekoizleei laguntzeko.
- **Herritarrek erabili ahal izateko bizikleta elektrikoak jartzea.** losu Arraizek erantzun die 2011n jarri zituztela hainbat bizikleta elektriko kalean herritarrek erabili ahal izateko, baina lau urtean erabili ez zirenez eta mantentze kostua oso handia zenez, kendu egin zituztela, baina hala ere, aztertuko dutela berriro gaia.
- **Soberan dagoen janaria banatzeko kanpainak antolatzea.** Jantokiak dituzten eskolekin edo enpresekin harremanetan jarriko direla esan die alkateak edo Mankomunitateari esango diotela bestela.

### MENDARO

- **Espaloietan zuhaitz egokiak jartzea, batzuetan handiegiak hazten direlako.** Iñaki Arregi alkateak erantzun die "lanketa berezia" ari direla egiten eta ari direla inausketak-eta egiten.
- **Trinitateko iturria konpontzea eta Santa Kurutzen iturria jartzea.** Alkateak erantzun die Trinitaten hobekuntzak egin dituztela eta konpondu dituztela iturria eta ur-jausia, bai eta argiztapena ere. Santa Kurutzen jarritako parrillek izan duten arrakasta ikusita, beste bat jartzeko asmoa dutela ere zehaztu die, baina hara ura eramatea kontu zailagoa dela nabarmendu die. "Momentuz ez dugu modurik topatzen, baina jarraituko dugu irtenbide baten bila".
- **Skate parkeko txorroak kentzea, parkea handitzea, gimnasia egiteko makinak konpontzea eta kantxa estaltzea.** Alkateak erantzun die txorrotak mantendu egingo dituztela ume txikiak gustura ibiltzen direlako. Makinen mantentze lanak egiten dituztela argitu die eta kantxa estaltzeko aukera aztertu egin beharko lukezela. Esan die aurrekontuak eskatuko dituztela eta datorren urtera begira jarriko direla zer egin aztertzen.
- **Bidegorri bat egitea Mendarotik Elgoibarrera.** Ideia oso ona dela esan die alkateak eta hasita daudela lanean. Gogorarazi die Mendaroko eta Altzolako hondakin-urak Elgoibarko Apraizko araztegiara eramanez ahal izateko kolektoreak eraikitzeko proiektuaren idazketa lizitatuta dagoela eta aztertuko dutela obra horrek balio duen bidegorria bultzatzeko.
- **Eskola pareko paperaren zaborrontzia egokitzea edo aldatzea, oraingoa oso altua delako eta zuloa oso txikia delako.** Alkateak erantzun die arrazoia dutela eta Mankomunitatearekin jarri direla harremanetan irtenbide bat bilatzeko.
- **Presape bainurako egokitzea.** Alkateak erantzun die erreka bazterren gaineko eskumena Ur Agentziarena dela eta Udalak ezin duela hor esku-hartzerik egin, baina proposamena bidaliko diela.





## 1960

Aste honetako erretratu zaharra Julen Zabaletaren argazki artxibotik berreskuratu dugu. Elgoibarko mendizale talde batek eginiko irteeran ateratako erretratua da, 1960. urte inguruan. Picos de Europa egin zuten irteera, Torre Llambrión mendira (2642 m), hain zuzen ere, eta gailurrean atera zuten argazkia. Seguru-seguru ez dakien arren, erretratuan agertzen diren atetik bera bakarrik bizi dela uste du.

**Goian, ezkerretik hasita:** Ezezaguna, *Ibartxiki*, Sabino (usurbildarra), Pako Iriondo *Sebitas*. **Erdian:** *Pikas* (zarauztarra), Juanjo Astigarraga *Porru*, ezezaguna. **Behean:** Don Jose medikuaren semea, Julen Zabaleta, Yudego eta Juan San Martin.



## Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.





## “Aukera bat emateko eskatzen diot jendeari”

### ▶ **HASSAN EL BOUJDDAINI** GAZTE ETORKINA ETA BRIGADAKO LANGILEA

10 bat urte zituela hil zitzaion aita, eta 15 urterekin, Europara abiatu zen, ama eta bi arreba utzita. Bizimodu hobea nahi zuen etxe koentzat, eta Europan zuen itzaropena jarrita, baina ez zuen errazik topatu hemen. Etorkin adingabeentzako zentroak ezagutu ditu, aterpetxeak ere bai eta kalean bizitzea zer den ere badaki. Babesik gabe, arbuatuta eta estigmatizatuta bizi izan da denbora luzez, dokumentuak berritzeko presio etengabea. Azkeneko bi urteak, baina, Kolore Guztiak erakundeak Mendaron duen etxebizitza batean eman ditu, beste lau lagunekin batera [Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako departamentuarekin hitzarmena egina du Kolore Guztiak-ek], eta gaur, alokairuan bizi da. Astero biltzen da hezitzailearekin jarraipena egiteko, eta aldi baterako, Mendaroko udaletxeko brigadan ari da lanean. Lasaitasuna topatu duela dio, baina iragana pisua zaio aurrea egiten jarraitzeko. Elkarrizketara, Kolore Guztiak-eko hezitzaile batekin agertu da, Amaia Garaterekin. Ez du inoren beharrik komunikatzeko, baina “babesa” ematen dio laguna alboan izateak.

- AINARA ARGOITIA -

#### ◆ Nondarra zara?

**Hassan:** Maroko iparraldekoa naiz, Nador ingurukoa, Rif eskualdekoa. Zuentzat Euskal Herria Espainian dena da niretzat Rif Marokon eta riftartzat daukat neure burua. Marokon arabiera da hizkuntza ofiziala, baina guk geure hizkuntza daukagu: berberea. Duela 7 urte irten nintzen ni Marokotik, bakarrik. 15 urte nituen. Melillara iritsi nahi nuen, adingabeentzako zentrori, han paperak zuzenduko zizkidaten itzaropenarekin penintsulara sartzeko.

#### ◆ Zerk bultzatu zintuen sorterrira uztera?

**Hassan:** Beharrak. 10 urte nituela hil zitzaigun aita, eta ama eta hiru neba-arreba ginen gu etxean, bi arreba eta ni [aurrez arreba bat hil zitzaion]. Egoera zailean geunden. Erabaki nuen zerbait egin behar nuela amari eta arrebei laguntzeko.

#### ◆ Lortu zenuen Melillara iristea, bidai luzeago baterako abiapuntura. Zer topatu zenuen han?

**Hassan:** La Purisiman sartu ninduten, adingabeentzako zentroan. Hala esaten diote, adingabeentzako zentroa, baina izatez, han ez dago ezer onik eta kartzela baten itxura handiagoa du. Sekula ez naiz kartzelan egon, baina halako zerbait izango dela imaginatzen dut. Ehunka gazte geunden han pilatuta, eta orain ere, hala omen dago zentroa, gainezka. 1.500 bat gazte izango direla entzun dut. Han sartzen garenean dokumentatu egiten gaituzte eta Melillako administrazioaren tutorepeko izatera pasatzen gara, baina 16 urte baino gehiagorekin iristen direnekin ez dute betetzen batzuetan. [Espainia behartuta dago adingabeak artatzeri, dokumentazioa ematera, eskolaratzeri, eta, adindunak direnean, 18 urte betetzen dituztenean, bizileku baimena ematera].



Tutorepean egonez gero, beharbada, aukera gehiago daukazu bizileku baimena lortzeko, baina ez dute hain erraz ematen. Ni sartu nintzenean batzuek lortu zituzten dokumentuak zentroan lau bat hilabete eginda, baina orain, gutxienez bederatzi hilabete egin behar ei dira han. Aldatu egiten dituzte legeak. Gazte asko saiatzen dira gabez zentro hartatik ihes egiten, bizileku-paperen zain egoteaz aspertuta.

#### ♦ Zeu ere bai?

**Hassan:** Bai, neu ere saiatu nintzen han urtebete egin ondoren. Ahalegindu nintzen kamioiren baten azpian sartuta edo olanean ezkutatuta gora [penintsulara] egiten, bai eta igerian egin, itsasontzi batera gerturatu eta soketatik gora igotzen ere. Arrisku handia hartu behar da, baina etsita nengoen, eta hainbat aldiz ahalegindu nintzen urtebete inguruan. Gava zentroan ematen nuen nik beti, gauetan pasatzen zirelako hezitzaileak han ote geunden zenbatzera, eta ez zeudenak zigortu egiten zituztelako. 22:00etan ixten dute zentroa eta han egon beharra dago ordurako. Gabez ihes egitea, baina, errazagoa da, besteak beste itsasontzi gehiago ere irteten direlako kaitik, eta horregatik ahalegintzen ziren gehienak gabez alde egiten, zentrorra itzuli gabe. Ni ez; ni gauero han egon nintzen eta saiakera guztiak egunez egin nituen, ez nuelako nahi portaera okerregatik paperik gabe gelditzerik. Eta asmatu nuen nonbait, eskuratu nituelako azkenean paperak.

#### ♦ Kartzelak halakoak irudikatzen dituzula diozu. Nolakoa da egun bat La Purisiman?

**Hassan:** Oso gogorra da. Gainezka dago, tirabirak sortzen dira, eta horregatik ere, gazte askok alde egin eta kalean bukatzen dute. Han, ez dute nahikoa baliabide hartzen duten jende kopuruari erantzuteko. Hara iristen garen guztiok penintsulara iritsi nahi dugu, baina inork ez gaitu nahi. Etxekoen ardura ere barenen, eta zer esanik ez haien falta. Ezin nuen nik nahi bestetan hitz egin amarekin eta arrebekin eta gogorra da. Ia hamar hilabete egin nituen han. Jaten ematen ziguten.

#### ♦ Paperak eskuratu zenituen. Eta gero, zer?

**Hassan:** Paperak eskuratu bezain laster, etxera itzuli nintzen, agurtzera. Hilabete egin nuen etxekoekin eta Malagara (Espainia) joan nintzen gero. Etorikinentzako zentro guztiak beteta zeuden hara iritsi nintzenean, eta kalean igaro nituen bi hilabete inguru. Hondartzan egiten nuen lo batzuetan, eta parkeren batean besteetan. Baina, tira, Malagan bero egiten du, eta ondo-edo. 18 urte beteak nituen ordurako, eta adinez nagusi egiten zarenan, egoera zaildu egiten da. Ez daude hainbeste aukera. Aterpetxe baterako itxaron zerrendan eman nuen izena. Kontuak eramaten zituen gizona marokoarra zen, Nordin izeneko bat. Hark esaten zigun noiz sartu gintezkeen edo zenbat itxaron behar genuen. Lo egiteko lekua eta jana eskaintzen ziguten han. Handik Madrileren jo nuen gero. Hiru bat hilabete pasa egin nituen Madrilen kalean bizitzen, eta gero, San Juan de Diós aterpetxetik

deitu zidaten. Ez nengoen ondo. Paperak berriro beharra neukan eta presio horrekin bizi nintzen gau eta egun. Gogorrena hori da. Ikustea paperik gabe gelditu behar duzula eta ezer ez daukazula: ez lanik, ez bizilekurik, ez lagunduko dizun inor. Oso gogorra da. Kalean ezin duzu lo lasai egin, beti zaude beldurrez. Inork ez gaitu gertu nahi eta Polizia, berriz, beti daukagu atzetik. Txatarra batu eta saltzen jardun nintzen, ahal nuen moduan, baina batzuetan ikusten ninduen Poliziak eta dena kentzen zidan. Datozela konturatuz gero, dena dagoen lekuan utzi eta ihes egin behar izaten da, harrapatuz gero isuna jartzen digutelako. Aterpetxetik deitu zidatenean, hilabete inguru egin nuen gauetan hara joaten lotara.

#### ♦ Lagunik egin zenuen bidean?

**Hassan:** Madrileren artekoan ez nuen nik laguntza handirik jaso. Kalean ere bakarrik nengoen. Bazeuden marokoarrak, baina ez nuen inor ezagutzen, eta kalean eguna luzea da, are gehiago bakarrik zaudenean. Madril erdialdean bizi izan nintzen ni, baina inguru horretan ez nuen ikusi kalean bizi zen besterik. Gehienak zubiak dauden auzoetan biltzen dira, baina ni beldur nintzen. Mesfidantza handia ere sortzen da kalean, eta nahiago nuen nire auzoan gelditu. Parke zabalak zeuden eta arbolapetan babesten nintzen gauetan, Madrilen hotz egiten duelako. Txatarra saltzera Atocha aldera joaten nintzen eta han bai, han jende asko bizi da kalean.

#### ♦ Nola bizirauten da kalean?

**Hassan:** Oso gaizki, eta hain gazte zarela, okerrago nik uste. Estorbuan zaudela sentitzen duzu, inork ez zaituela nahi, eta zaila da. Ikasten duzu umeei edo gaztetxoei bakarrik galdetu diezaikezula kaleren baten bila-edo zabiltzanean, adin batetik aurrerako jendeak ikusi ere ez zaituelako egiten. Ematen du inork ez daukala astirik guri erantzuteko, baina hori

baino gehiago da.

#### ♦ Eta Madrilditik Burgosera gero. Nolatan?

**Hassan:** Gutxi falta zitzaidan paperik gabe gelditzeko, eta Burgosera igo nintzen, bai, lagun batek aholkatuta. Burgos oso hotza da, eta preparatuago dago kalean bizi den jendea hartzeko. Normalean ez dute inor kalean uzten eta ni harrera etxe batean sartu ninduten, Atalaya Intercultural erakundearen etxe batean. Han, ondo. Ikasteko aukera eman zidaten eta hainbat ikastaro egin nituen: Zamalari ikastaroa, soldadurakoa... Era berean, lanean ere jardun nintzen, uzta biltzen, eta ezagunak ere egin nituen etxe hartan. Zortzi bat hilabete egin nituen, baina hor neukan beste kontua: paperak berriro behar hori. Hilabete gelditzen zitzaidan paperik gabe gelditzeko eta nirekin Melillan egondako gazte bati deitu nion aholku eske. Hark esan zidan Donostiara etortzeko.

#### ♦ Donostia ez zen, baina, espero zenuena izan, ala?

**Hassan:** Esan zidan Donostian izango nuela paperak berriz, baina kalean bizi beharko nuela aldi batez. Jakinaren gainean nentorren beraz. Ez zen gauza berria niretzat, eta etorri nintzen

*“Neu ere saiatu nintzen kamioiren baten azpian sartuta edo itsasontzi batera igota gora egiten”*

honuntz. Donostiara iritsi nintzenez, baina, dena kolapsatuta zegoen, eta uste baino denbora gehiago eman behar izan nuen kalean, etxe guztiak etorkin adingabez beteta zeudelako. Urtebete baino gehiago egin nuen kalean. Gauetan, Intxaurrondoko zubipera erretiratzen nintzen, beste hogeit bat gazterekin. Melillan ezagututako asko topatu ditut hemen, eta haietako batek eraman ninduen Intxaurrondora ere. Zubipe horretan bost bat hilabete egin nituen. Goizean, eguna argitzeaz batera, 06:00ak aldera, bost-sei polizia etortzen zitzaizkigun egunero, handik alde egiteko eskatzen, eta gauetan itzultzen ziren beste bost bat, egunez non eta zertan ibili ginen galdezka, eta zerbait egin ote genuen egiaztatu nahian. Eta aitortu behar dut egin ditudala egin behar ez nituenak ere, eta damu naiz, jakina, baina biziraun nahiak eraman nau egin nahi ez nituenak egitera. Biziraun nahiak eta droga behar izateak ere bai. Kalean bizi direnen artean droga kontsumoa oso zabaldua dago. Ez dago ondo, baina droga laguntzen du bizi duzuna ahazteko. Edo ez, baina aldi batez, harrapatzen gaitu.

Eta orain, ordaindu beharko dut horren ordaina, jakina. Epaiketa izango dut laster, eta prest nago egindako kaltea ordaintzeko, baina ezin dut ukatu mina ematen didanik. Mina gure amak sekulako disgustua hartuko duelako, oso sentikorra baita, eta mina, azkeneko bi urtean nire bizitzak beste bide bat hartu delako. Orain, ondo nago, azkeneko bi urtean ez dut drogarik kon-

*“Ikasten duzu umeei edo gazteei bakarrik galdetu diezaiokezula kalean, zaharragoek ikusi ere ez gaituztelako egiten”*

tsumitu, garbi nago, lana daukat, baina iraganeko kontuak ari zaizkit agertzen.

**Amaia:** Amorragarria da guretzat ere. Ikusten duzu zelako ahalegina egin duen Hassanek aurrera egiteko, eta orain hau... Kalean bizitzea zer den ez dakienari kosta egingo zaio ulertzea, baina egoerak behartu du egin behar ez lituzkeen gauzak egitera. Ezagutzen dugu Hassan, mutil ona da, eta horregatik da hau guztia etsigarria.

#### ◆ Zerk aldatu zizun gero bizitza?

**Hassan:** Urtebete pasatxo neraban kalean, eta Kolore Guztiaketik deitu zidaten, elkarrizketa baterako. Duela bi urte inguru izan zen hori. [Bazterketa egoeran dauden gazteekin edota kalean bizi direnekin lan egiten du Kolore Guztiak erakundeak]. Antiguoko etxe batean lekua zutela esan zidaten, baina nik alde egin nahi nuen Donostiako infernutik eta galdetu nien ia aparterago ez zeukaten beste lekurik. Mendaroko etxea aipatu zidaten. Nik ez nekien non zegoen ere Mendaro, baina baietza eman nien berhala.

**Amaia:** Normalean, inork ez du nahi izaten Mendarora etortzerik, hiri handien bueltan aukera gehiago izango dutela uste dutelako, baina Hassanek berak eskatu zigun hona etortzea.

#### ◆ Noiz iritsi zinen Mendarora eta zer topatu zenuen hemen?

**Hassan:** 2019ko maiatzean sartu nintzen Kolore Guztiak-ek Garagartzan duen etxera. Beste lau lagunekin bizi izan naiz hor urtebete eta hamaika hilabetez. Lasaigarri bat izan da Mendarora etorri izana, eta asko lagundu dit herri honek. Donostian gelditu izan banintz, gaur beste egoera batean nengoke seguru. Ziurrenik jarraituko nuen drogak kontsumitzen, eta Poliziak jazarrituta. Berdin da zerbait egin duzun edo ez; ezagutzen gaituzte eta beti geldituko gaituzte. Orain, joan ere ez naiz egiten Donostiara, derrigorra ez bada. Gela bat alokatu diot mutil bati eta pozik bizi naiz, Azpilgoetan. Brigadan ari naiz lanean eta oso gustura nago nire lankide Jose eta Josebarekin. Askok ari naiz ikasten, euskara ere bai pixkat, eta izugarri laguntzen didate. Askok eskertzen diet.

#### ◆ Bestelako lanetan ere ibili zara, baina, aurrez, eta ondo egindako lanari aitortza ere jaso zenuen IMHn. Kontaguzu.

**Hassan:** Bai. Donostian sukaldaritza ikastaro bat egin nuen, eta praktiketarako saltoa eman behar nuenean iritsi nintzen hona. Luzaide jatetxean eman zidaten praktikak egiteko aukera, eta praktikak bukatu ostean ere, egon nintzen lanera joaten. 2019ko udan, baina, lana utzi eta Rifera itzuli beharra izan nuen, ama oso eskas jarri zelako. Minbizia zuen, ebakuntza handia egin behar zioten eta han behar ninduen, bakarrik zegoelako nire arreba txikiarekin. Bi hilabete egin nituen amaren ondoan, eta orduan kontaktu nion kalean bizitzen egon nintzela hemen. Eguna ospitalean igarotzen nuen amarekin eta gabean ospitale ondoko hostal batera erretiratzen nintzen lotara. Bi hilabete egin nituen han, ebakuntza egin aurretik hogeit egun ingesatuta eman zuelako







Hassan El Boujddaini, Amaia Garate eta Janet Esteban Kolore Guztiak elkarteko hezitzaileekin.

amak, eta ondoren, oso ahul gelditu zelako. Baina banuen ardura bat: hango egonaldia luzatuz gero, hemen lanik ez nuela topatuko pentsatzen nuen eta itzuli nintzen bi hilabetera. Alferrik, baina. Baina jakin izan banu, han geldituko nintzen, amak eta arrebak nire behar handiagooa zutelako, baina dirua behar nuen amari laguntzeko ere.

◆ **Zer moduz dago ama?**

**Hassan:** Minekin dabil, baina hobeto dagoela dio.

**Amaia:** Marokon osasungintza ez da publikoa, eta aste batetik bestera 500 euro bidali behar izana ere tokatu zaio Hassani, amaren ospitaleko egonaldia ordaintzeko. Guk ez geneukan horren berri; ez dugu jakin zenbateko presioa bizi izan duen etxekoei dirua bidaltzeko. Jakin genuenean zer ari zen bizitzen, zenbat ari zen sufritzen isilean, poltsak egiteari ekin genion. Poltsak margotu eta saldu ditugu, dirua ateratzeko. Modu horretan erakutsi nahi genion laguntzeko geundela, eta ez epaitzeko. Hassanek beti esan izan digu oso jende gutxi topatu duela bidean lagundu diona eta hori etsigarria da. Mesfidantza eta dezepzioa eragiten ditu horrek.

**Hassan:** Bai, egia da hori. Ez duzu pentsatzen lagunduko dizunik topatzea ere. Orduan ere etsita nengoen. Ikastaro batzuk eginda nituen, baina ez nuen lanik topatzen eta IMHko Erronka Dualerako izena ematera animatu ninduten hezitzaileek. [La Caixa Gizarte Ekintzarekin eta Kalexa elkartearekin elkarlanean, IMHk gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden gazteentzako landu zuen proiektua da Erronka Duala]. Izugarri lagundu zidaten han. Neure burua baloratzen erakutsi zidaten. Martxora arte eskolara joaten egon nintzen egunero, eta gero, bideo-deien bidez bukatu genuen ikastaroa. Praktikak, berriz, Elgoibarko Pneumaxen egin nituen. Hango arduraduna,

lñaki, oso pertsona ona da eta asko lagundu dit, baina han ere eragin zuen pandemiak eta bertakoentzat ez zutenean, ezin banerri lana ematen hasi! Baina kontuan izango nautela esan dit lñakik eta eskertzen diot. Hangoak amaitu eta Lanbidetik deitu zidaten gero, Mendaroko udaletxean brigada lanetan hasteko, eta orain, oso pozik nago. Orain arte ezagutu ditudan leku guztietan ez dut Mendaron besteko babesik topatu. Eta ez dut esan nahi beste lekuetan jende ona egongo ez denik, baina nik hemen ikusi dut argia.

◆ **Zer sentitzen duzu Ceutako irudiak ikusten dituzunean, edo berdin Bidasoa ingurukoak ikusten dituzunean?**

**Hassan:** Pena ematen dit, jakina, baina ez dut sentitzen ziurrenik zuk sentituko duzun hori. Nik bizi izan dut hori, eta niretzako bizitzaren parte da. Ez luke hala izan beharko, ez da justua, baina hori da guri tokatu zaiguna.

◆ **Gazte etorkinekin lan egiten duzu, Amaia. Zer duzu esateko?**

**Amaia:** Inor epaitzen hasi aurretik, ezagutu egin beharko genukeela. Aukera bat eman behar diegula pertsonei, eta aukerak dira hain justu hauek falta dituztenak. Adibide bat jarriko dizut: etxebizitza bat alokatu ahal izateko neuk deitu behar izaten dut bere orde, bestela aukerarik ere ez diotelako ematen. 'Nongoa da?' galdetzen du jendeak, eta 'hemengoa' erantzuten diet nik beti. Izan ere, zenbat denbora gehiago pasatu behar da hemengotzat har dezagun? Euskal herritarra da Hassan.

◆ **Zerbait gehitu nahiko zenuke, Hassan?**

**Hassan:** Egia da hori. Aurpegian igartzen zait nongoa naizen eta jendeak erreparo handiak ditu gu bezalakoekin. Aukera emateko eskatzen diet. Nik ere ezagutu nahi ditut. Egia da ez dakidala zer etorriko zaidan orain, iragana pisua zaidalako, baina 22 urte ditut, eta lan egin nahi dut. Eta eskerrak ere eman nahi dizkizuet lagundu didazuen guztioi. Etxeko zaitzuet.

*“Orain arte ezagutu ditudan leku guztietan ez dut Mendaron besteko babesik topatu. Eskerrik asko”*



## ► IBON HOZ

### EAEKO KONTSUMITZAILEEN ELKARTEKO ARDURADUNA

**Ekainean sartu da indarrean argia fakturatzeko sistema berria, eta herritarren artean kezka piztu da horren inguruan. Ordutegi batzuk zehaztu dituzte, eta ordutegi bakoitzak bere tarifa izango du. Baina nola eragingo dio horrek kontsumitzaileari? Ibon Hoz EAEko kontsumitzaileen bulegoko arduradunak eman dizkigu azalpenak.**

- AINHOA ANDONEGI -



#### ◆ Zer aldatu da argiaren fakturazio sisteman?

Hiru ordutegi zehaztu dituzte: *punta*, *llana* eta *valle*. *Punta* da garestiena, hau da, 10:00etatik 14:00etarako eta 18:00etatik 22:00etarako, eta itxura denez, kilowatioaren prezioa gaur egungoa baino zertxobait garestiagoa izango da ordu tarte horretan. *Llanak* edo atal urdinak, hau da, 8:00etatik 10:00etarakoak, 14:00etatik 18:00etarakoak eta 22:00etatik 00:00etarakoak, gaur egungo tarifaren prezioa izango du gutxi gorabehera edo agian apur bat merkeagoa izango da. Eta *valle* merkeena izango da, hau da, astegunetan gauz eta asteburuetan eta jai egunetan 24 orduz. Beste aldaketa garrantzitsu bat ere badago, eta hau uste dut oharkabean pasatu dela kontsumitzaile askorentzat: orain bi potentzia kontratatze aukera daukagu.

#### ◆ Zer eragin dauka bi potentzia kontratatu ahal izateak?

Orain arte potentzia bakarra aukeratu ahal genuen, baina orain hori aldatzeko aukera daukagu. Potentzia baxuagoak, merkeagoak dira, hortaz, aukera dago ordu tarte garestietarako potentzia merkeagoa kontratatzeke, eta ordu tarte merkeetan, hau da, energia gehiago kontsumituko dugun tarteetarako potentzia handiagoa kontratatzea. Honek arrisku bat dauka, izan ere, potentzia baxua kontratatu duzun tartean, demagun laba piztu eta aldi berean arropa lisatzen hasi zarela, eta berogailua ere piztu duzula. Ba seguruenik diferentzialak salto egingo du. Ondo kalkulatu behar da tarte bakoitzean behar dugun potentzia. Datorren urteko maiatzaren 31ra arte bi aldiz eskatu daiteke potentzia aldatzea doan, beraz, kalkuluak egiteko aukera daukagu epe horretan. Gero, orain arte bezala, potentzia aldatzea kobratu egingo dute. Gaueko ordu tarterako potentzia handia kontratatzea, adibidez, auto elektrikoa dutenentzat aukera ona da, autoen bateriak gauz kargatzen delako. Kuriositatez egin beharko genuke denok egun baten etxeko elektrotresna potenteenak batera piztu eta zer gertatzen den ikusi. Diferentzialak salto egiten ez badu, esan nahi du potentzia gehiegi daukagula kontratatuta eta behar genukeena baino gehiago ari garela ordaintzen.

#### ◆ Zergatik egin dute aldaketa hau?

Energia aurrezteko hartu duten erabakia izan da. Europako herrialde batzuetan aspalditik daukate horrela araututa, eta orain,

“Konpainia elektrikoek ezarri duten tarifa ordutegia betez dirua aurreztu daiteke”

hemen ezarri dute. Ordu batzuetan energia kontsumo handiegia egoten zen, eta nolabait hori banatu nahi izan dute. Auto elektrikoaren salmenta ere sustatu nahi dute, horregatik jarri dute gaueko tarifa merkeena, autoaren bateriak kargatzeko.

#### ◆ Kontsumitzaileok gure kontratazioa aldatu beharra daukagu aldaketa hauen ondorioz?

Ez, konpainia elektrikoak berak egingo ditu aldaketak. Bezerook ez daukagu ezer egin beharrik. Hori bai, konpainiak bezeroa informatzeko betebeharra dauka. Nik gomendatu nahi nuke, adinekoei batez ere, telefonoz egiten dizkiguten eskaintzekin ez fidatzeko, konpainia guztiek beraien alde egiten dutelako.

#### ◆ Askotan ez dugu jakiten zer ordaintzen ari garen ere. Zer hartu behar dugu kontuan energia kontratatzerakoan?

Merkatu librea eta tarifa arautuko merkaturak daude. Merkatu libreko tarifak garestiagoak dira, beraz, komeni da merkatu arautuko tarifak kontratatzea. Tarifa hori Gobernuak arautzen du, eta merkatu librean konpainiek jartzen dituzte prezioak. Tarifa arautuan gainera, abonua soziala eskatzeko aukera ere badago, eta merkatu librean, ez. Komertzial askok telefonoz deitzen dutenean, deskontuak, mantenua, gasa eta argia batera edo aseguru bereziren bat eskaintzen dute, baina merkatu libreko tarifekin, beraienentzat etekin handiagoa lortzen dutelako. Normalean, gainera, aseguru horiek alferrikakoak izaten dira, etxearen aseguruak berak ez behar berberak babesten dituelako eta berogailuaren etxeak berak ere eskaintzen dituelako etxetresnaren azterketak. Kontuan



hartu behar da baita ere, kontsumo mota. Batzuek tarifa laua aukeratzeko, hileru berdinean ordaintzeko, baina kasu horietan, konpainia elektrikoek normalean goitik kalkulatu dute kontsumoa, eta kontsumitakoa baino gehiago ordaintzen dute askok. Hobe izaten da kontsumitakoa ordaintzea.

◆ **Zer egin dezakegu argiaren fakturazioan aurrezteko?**

Konpainia elektrikoek ezarri duten tarifa ordutegia errespetatu behar badugu, dirua aurreztuko dugu. Ulertzen dut jende askok ez duela arropa garbigailua gauko 00:00etatik aurrera jarriko, baina gutxienez, erdibideko orduetan jartzea gomendatuko nuke. Beste aukera bat da elektrotresnak programatzea. Gaur egun ontzi eta arropa garbigailu eta lehorgailu gehienak programatu egin daitezke, eta horrek aukera ematen du tarte merkeetan martxan jartzeko. Bazkari eta afari orduak geratzen zaizkigu, horiek tarte garestienetan tokatzen dira eta zaila izango da beste ordu batzuetan sukaldatzea. Batzuek egiten dute tarte merkean edoertainean sukaldatu, eta gero berotu bakarrik. Mikro-uhin labea denbora gutxian berotzen da, baina bitrozeramika edo indukzioak denbora gehiago behar dute eta energia gehiago kontsumitzen da. Ohitura batzuk aldatu eta tarifa altuena duen ordu tarte sahistea garrantzitsua da. Kooperatiben aukera ere badago, eta horiek tarifa merkeagoak eskaintzen dituzte normalean. Baina kooperatiba izatean, bezeroak bazkideak ere badira eta kuota bat eskatzen dute gehienek. Egia esan, konpainia batetik bestera ez da diferentzia handirik egoten, fakturazioan kostu finkoak berdindirako guztietan. Kontsumoaz gain denok ordaintzen ditugu kostu finkoak eta horiek ez dira apenas aldatzen konpainia batetik bestera. Orain, atal finko hori ere desglosatuta agertuko zaigu fakturan, jakiteko zer ari garen ordaintzen. Esan dutenez zergaren bat desagertu egingo da, eta atal finkoa zertxobait merkeagoa izango omen da aurrerantzean. Kontsumitzaileak ezin du ezer egin atal finkoa merketzeko. Kontsumoa eta potentziaren kontratazioa soilik daude kontsumitzailearen esku.


*“Komeni da merkatu arautuko tarifak kontratatzea, merkatu librekoak baino merkeagoak direlako”*

◆ **Zeintzuk dira gehien kontsumitzen duten elektrotresnak?**

Denbora gutxian berotasun handia behar duten elektrotresnak dira garestienak. Labak esaterako energia asko behar du denbora gutxian berotasun handia hartzen duelako. Arropa lehorgailuak ere beroa behar du, eta horrek ere asko kontsumitzen du. Bitrozeramika, indukzioa, plantxa... horiek dira garestienak. Arropa eta ontzi garbigailuek ere motorra dute eta programak luzeak izaten dira, baina ez dute hainbeste bero hartzen. Hozkailua ere etengabe entxufatuta eta martxan egoten da, baina kontsumo nahiko

konstantea dauka. Udan kontsumitzen du gehiago, normalean hotzago jartzen dugulako. Hozkailuaren tenperatura erregulatu egin daiteke, eta zenbat eta hotzago jarri, garestiagoa da. Zorionez, tresna hauek guztiak gero eta efizienteagoak dira. Gero badaude tresna asko stand by moduan geratzen direnak, itzalita baina argi gorria piztuta: telebista, ordenagailua, telefonoaren kargadorea... horiek ere zertxobait kontsumitzen dute, baina oso-oso gutxi. Horiek guztiak itzalita ere ez da apenas aurreztuko. Gaur egun, gainera, tresna horiek gero eta gutxiago kontsumitzen dute. Egia da, baina, guztiz itzaliz gero, tresna horien biziraupena luzatu daitekeela.

**ARGINDARRAREN PREZIOA ORDUAREN ARABERA**





## ► DAVID BARTOLOME ELGOIBARKO KONSUMITZAILEEN BULEGOKO ARDURADUNA

Orain dela bi urte hasi zen David Bartolome (Santurtzi, 1976) Elgoibarko kontsumitzaileen bulegoan lanean, eta bi urteotan kontsulta eta erreklamazioen kopuruak gora egin duela esan du. Telefonian alorreko kontsultak izaten dira gehienak, baina pandemiarekin bidaiei loturiko kezka eta zalantzak izan dira gehienak.

- AINHOA ANDONEGI -

# “Kontratazio guztiak idatziz edo aurrez-aurre egin behar dira, letra txikia ondo irakurrita”

### ◆ Zein da Kontsumitzailearen Bulegoaren funtzioa?

Kontsumitzaileen erreklamazio eta kontsultak tramitatzen ditugu. Kontsulta egitera etortzen denari informazioa ematen diogu, eta gero berak erabakitzen du erreklamazioa jarri nahi duen edo ez. Hemen azaltzen diegu erreklamazioak nola egingen diren, baina guk berez ez ditugu erreklamazioak tramitatzen. Adinekoak dira salbuespena. Askotan zaila izaten da adinekoei erreklamazioak nola egin behar dituzten azaltzea, eta hemendik kudeatzen ditugu, baina gainerakoan, erreklamazioa norberak egin behar du. Askok esaten digute ez daukatela denborarik horretan hasteko edo lotsa ematen diela adibidez herriko dendaren batean erreklamazioa jartzea eta egiteko nik, baina hori ez da nire zeregina. Ni informazioa

emateko eta laguntzeko nago, baina ez erreklamazioak egiteko.

### ◆ Nolako kontsultekin etortzen zaizkizu herritarrek?

Mugimendu handia egoten da bulegoan, eta denetik galdezen du jendeak. Iaz arte teknologia eta telefonian alorreko kontsultak ziren nagusi, baina pandemiarekin bidaiei buruzko kontsultak izan ziren gehienak iaz. Jende askok hegaldiak eta egonaldiak hartuta zituen eta bertan behera geratzean jakin nahi zuten zein eskubide zituzten. Dentix enpresaren itxierarekin ere izan genituen kontsulta asko iaz. Baina bestela, teknologia, online bidezko erosketak eta energiaren fakturei buruzko kontsultak izan dira gehienak. Jende asko etortzen da bulegora. Herritarrek badakite eskubide batzuk dituztela, eta hori jakitea oso garrantzitsua da.





Nik bi urte daramatzat hemen lanean, eta egunero gainezka egoten naiz. Goizez barrarik egoten da bulegoa zabalik, eta askotan larri ibiltzen naiz. Jende asko etortzen da.

♦ **Jendeak ba al dauka ohitura fakturak begiratu eta aztertzeko?**

Batzuek bai. Berehala konturatzen dira hilabete batetik bestera gehiago kobratu ditela eta aztertzen dute faktura, baina beste askok ez diete fakturei erreparatzen, kantitate oso handikoa ez bada behintzat. Konpainiek ere hori badakite, horregatik igoera txikiak aplikatzen dituzte askotan. Jende gehienari oharkabean pasatzen zaizkio, baina konpainiarentzat dirutza izaten da.

♦ **Zerbait erosi edo kontratatzerakoan, zer eduki behar dugu kontuan?**

Nire aholkua izaten da kontratazioak ez egitea inoiz telefonoz. Gehienetan komertzial batek deitzen du, eta sekulako eskaintza egiten dizu, telefonia, elektrizitate edo gas konpainiaz alda zaitezten. Deskontuak eta prezio hobeak eskaintzen dizkizu, baina bere helburu bakarra zure kontu korrantea eskuratzea izaten da. Zure baietza lortzen duenean, bukatu da berarekin harremana. Hilabete batzuetara konturatzen zara ez dela ari betetzen eskaini zizuna, eta erreklamazioa egiten duzunean esaten dizute zuk beste zerbait onartu edo sinatu zenuela. Kontratazio guztiak idatziz edo aurrez-aurre egin behar dira, letra txikia ondo irakurrita. Onena denda batean egitea da, edo bestela, kontratua idatziz bidaltzeko eskatu behar da, dena ondo irakurtzeko.

♦ **Online erosketak ere aipatu dituzu.**

Bai. Online erostea oso eroso da, baina arriskutsua ere bai. Webgune ezagunetan erosi behar da. Eguberrien bueltan web-

*“Kontsumitzaileek badakite eskubide batzuk dituztela, eta hori jakitea oso garrantzitsua da”*

gune faltsu asko sortzen dituzte, sekulako eskaintzekin, baina gero jende askori ez zaizkio produktuak iristen. Gezurretakoak izaten dira asko. Garrantzitsua izaten da erosketak bat on-line egiterakoan saltzaileari buruzko komentarioak irakurtzea. Inork ez du ezer oparitzen gaur egun, hori argi izan behar dugu. Jende guztiak dirua atera nahi dugu. Estafatua izan denak polizia etxean jarri beharko du sala-

keta, kasu horretan erreklamazioak alferrikakoak izaten direlako. Normalean telefono faltsuak izaten dira, helbide elektroniko bat ematen dute baina ez du inork erantzuten eta posta zertifikatu bidez bidalitako erreklamazioa ere bueltan etortzen da gehienetan. Estafa kasuetan oso zaila izaten da ezer berreskuratzea.

♦ **Bidaiei buruzko kontsultak izan ziren iaz gehienak. Zer eduki behar da kontuan bidaiak kontratatzerakoan?**

lazko egoera berezia izan zen, pandemiagatik. Alarma Egoeran bertan behera geratu ziren bidaiak edo hegaldien dirua erreklamatu daiteke, baina konpainiak beti saiatzen dira diruaren orde z bonoak eskaintzen. Baina jendeak jakin behar du baduela dirua erreklamatzeko aukera. Bidai agentzia fisikoetan ere traba asko jartzen dituzte bidaiak bertan behera lagatzeko, eta batzuek gainera, gestio gastuak kobratzen dituzte. Izugarria da! Kontsumitzaile askok bidai aseguru ere kontratatzen dute askotan, lasaiago egoteko, baina hori ere, nire ustez, estafa bat da, aseguru horrek letra txiki pila bat dituelako. Gertukoren baten heriotzagatik edo ospitaleratuta bazaude soilik balio du gehienetan. Esaterako gerra edo gatazka egoerengatik hegaldia bertan behera uzten baduzu, ez dizute dirurik bueltatuko, ezbehar meteorologikoengatik ere ez... Alarma Egoeran gobernuak ezartzen ditu erreklamazio arauak, baina bestela, konpainiak berak dauka agintea.

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
 cordonvilarchao@telefonica.net  
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 98 61 62**

Jon Aranao  
 Guillermo Torres  
**Elgoibar Albaitaritza**

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
 Asteleheneik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
 Larribatak: 11:00 - 13:00

Reapaindegiz zerbitzua daukagu.  
 Dena ardua hartzen da.

**LAGUNAK**  
 colchoneria textil hogar

**ZERBITZU BERRIA!**

Udarako arropa konpontzea behar duzu?  
 Ekarri eta zure neurrira utziko dizugu.  
 Edozein ehun konpondu ahal izateko makinak ditugu.  
 Barrenak hartu, arropak estutu edo zabaldu,  
 kremaierak konpondu edo jarri...  
 Mota guztietako arropetan egiten dugu lan, alkandorak,  
 galtzak, soinekoak, jakak, mailotak...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978  
 www.textillagunak.com

## ▶ ANITA LADYFINGERS eta INA HERR PROFESOR

MUNLET TALDEKOAK

2019ko abenduan itzuli ziren eszenatokietara, zapatuan Mendaron aurkeztuko duten proiektu honekin: Munlet Plays Devo. Donostian eta Bilbon jo zuten eta harrera "ezin hobea" izan zuten. Beste kontzerturen bat ere eman zuten gerora, baina pandemiak harrapatu zituen gero, eta beste askok bezala, derrigorrean gelditu beharra izan zuten. Itxialdian, streaming bidez eman zituzten kontzertu batzuk, eta ekainean, Carlos Cebrian taldekidea hil zitzaien ELA Alboko esklerosi amiotrofikoarekin. "Hustu ginen orduan". Lagunaren omenez antolatu zuten Cebriday jaialdian agertu ziren berriro, eta "negu gogoraren" ondotik hasi ziren "poliki-poliki" indarra hartzen. Zapatuan, San Agustin kulturgunean joko dute (1990) 'Begiekin Entzutekoak' zikloaren barruan, eta sarrerak salgai daude Puxikan eta Uztargin.

- AINARA ARGOTIA -





# “Devo-ren kantuak eta gureak nahastu eta zuzeneko dinamikoa eta entretengarria sortu dugu”

## ◆ ‘Munlet vs Devo’. Zertan oinarritzen da proiektu berri hau?

Devo-ren kantuak jotzen ditugu. 70eko hamarkada bukaeran eta 80ko hasieran sona hartu zuen talde estatubatuarra zen Devo, gu mugitu garen giro musikalean, punk eta *new wave* estilotan, talde funtsezkoa, nahiz eta hemen ez den, beharbada, oso eza-guna. Emanaldi hauetan Devo taldearen kantuak eta geureak nahasten ditugu, eta iruditzen zaigu era horretan zuzeneko dinamikoa eta entretengarria sortu dugula. Kantu bakoitza irudiz lagunduta emango dugu gainera. Devo-ren kantuak gaztelaniara itzuli ditugu, baina badago bat euskarara ekarritakoa ere. Diskoa ere prestatu dugu kantu guztiekin, baina ez dakigu noiz emango dugun argitara. Izan ere, kontzertuak modu serioagoan eman ezin diren bitartean, zaila da ezer aurreikustea eta planifikatzea.

## ◆ Irudi guztietan txapel edo buruko bereziak jantzita ageri zarete. Zer diozue estetika horretaz?

Buruko horiei Energy Dome esaten zaie, eta Devorenak dira. Haien musika ez ezik, haiek 80ko hamarkadan erabili zuten estetika errepikatzen ere saiatzen gara kontzertuetan.

## ◆ Urtebete da zuen taldekide Carlos Cebrian Cebri hil zela. Zer sentsazioekin igoko zarete oholtzara?

Cebriekin egin genuen gure azkeneko diskoa, *Chupacabras*. 2016. urtean eman genuen argitara, eta garai zoragarria izan zen hura. Cebri ondoan izateak pertsona hobeak egin gintuen, bai eta musikari hobeak ere, eta esango genuke berarekin goia jo genuela talde moduan. Ordurako gaixo zegoen, baina elkarrekin jardun ginen ahal izan genuen arte. Devo-ren proiektu hau prestatzen hasi ginenean esan zigun berak ezin zigula jarraitu eta bera gabe egin beharko genuela aurrera. Gogorra izan zen. Zapatuko kontzertua ere beragatik emango dugu hein handi batean. Bera zorionsua litzateke guk jarraitzen dugula ikusita. Indarra ematen digu, eta motibazioa ere bai. Egunero somatzen dugu haren falta.

## ◆ Zuek, Ina eta Ana, Gararock taldeko kide zarete. Zeuek antolatutako ziklo baten barruan joko duzue zapatuan.

Bai, Gararockeko parte gara gu, eta gainerakoekin batera baloratu dugu proiektu hau ere eta interesgarria iritzi diogu ziklorako. Ziklo honek bi helburu ditu: batetik, kalitatezko kontzertuak eskaintzea Mendaron, eta bestetik, entzute bat duten taldeei baldintza onetan jotzeko aukera ematea.

## ◆ Igandean zenuten jotzekoa, baina zapatara aurreratu duzue kontzertua. Nolatan?

Bai, igandean jo nahi genuen, eguerdian, vermutaren orduan. Konfinamenduan streaming bidez eman genituen kontzertu haiek genituen buruan eta nahi genuen ordu berean jo, giro hura errepikatzeko, baina azkeneko egunotan jakin dugu beharbada beste zerbaite ere izango dela ordu horretan Garagartzan, eta arazorik ez sortzeko, egunez aldatzea erabaki dugu. Badakigu jende bati planak aldatzea eragingo ziola honek, eta barkamena eskatu nahi diegu hemendik, baina gauzak ahal diren ondoen egin nahi izan ditugu.

## ◆ Zer espero duzue zapatuko kontzertutik?

Nahi genuke Mendaroko jendea etortzea kontzertura eta gozatzea. Uste dugu merezi duela eta ez direla etortzeaz damutuko. Adin guztietako jendea etortzea gustatuko litzaziguke, ondo pasatzeko gogoz. Munlet eta Gararock taldeetako kide garen aldetik

Mendaroko kultur eskaintza suspertzeko ari gara lanean, baina herrian kultura hori errotuko badugu eta eragile ezberdinen artean kultur eskaintza handitzeko lan egingo badugu, ezinbestekoa zaigu jendeak erantzutea ere. Horixe nahi genuke guk: jendeak erantzutea eta parte hartzea.

## ◆ Hogeit urte baino gehiagoko ibilbidea egin du Munletek. Aurrera begira, zer plan dituzue?

Kontzertuak gutxieneko baldintza batzuk zainduta emateko moduan gauden bitartean, jarraitu nahiko genuke jotzen. Jakina, gaur egun baditugu beste aldagai batzuk asko baldintzatzen gaituztenak jotzen jarraitzeko: umeak, lana..., baina lehenengo eguneko txispa eta ilusio bera dugu eta eutsi nahi genioke horri urte luzez. Ia ba pandemia hau lehenbailehen gainditzen dugun eta orain urtebetera arte geneukan bizimodu horretara itzultzeko moduan gauden denok.

## ◆ Eta, Maraca Diablo? Zertan da proiektu hori?

Bizi-bizi dugu proiektu hori eta laster gara diskoa grabatzen hastekoak ere. Lau lagunek osatzen dugu proiektua: Rafa Furnier (bateria), Asier Etxaniz (gitarra), Josu Iriondo (baxua) eta ni (ahotsa, eta gitarrak). Anak [Munlet] ere kolaboratuko du, hala ere, gurekin. Kantu guztiak euskaraz izango dira, eta nahi genuke zuzenekoak ematen hastea ahal den azkarren. Ia noiz iristen zaigun aukera!

“Adin guztietako jendea etortzea gustatuko litzaziguke kontzertura, ondo pasatzeko gogoz”

**Beruana kendu:** Gehiegi ez exageratzeko esan nahi denerako.  
*Gaur bota jittuagu berrogei bat uso! —Bai, zera! Beruana kendu (eg)ixok!*

## Enrike Eguren Diaz musikaria hil da

**O**sasunez makal zebilen azkeneko hilabeteetan eta joan zen ostiralean hil zen Enrike Eguren Diaz, 94 urte zituela. Orkestrinako musikaria izan zen eta 80 bat urtean ibili zen Elgoibarko auzoak eta inguruko herriak musikaz alaitzen. Pedro



Sodupe Gelatxo (1928-2007) soinu jolearen taldean aritu zen urteetan eta berak esana da urtean 120 saio baino gehiago ere lotzen zituztela orduan. Gelatxo gaixotu zenean sortu zuten Eguren orkestra Egurenek berak eta Jose Perez Cortes bateria jotzaileak. Soinu jotzailerik gabe nekez osatu zitekeela taldea eta Angel Perez Sarasketa soinu jole eibartarra gonbidatu zuten taldera. Saxofoia jotzen zuen Egurenek eta ospakizun askotan ibili zen urteetan, taldekideekin batera. Sanbartolomeetan, esaterako, sekula ez zuten hutsik egiten Jubilatuen Eguneko ospakizunetan. Jubilatuen Egoitzan ere urteetan aritu dira jotzen igande arratsaldeetako dantzaldietan. Horregatik, Elgoibarri emandako guztiagatik, bai eta herriko jubilatueganako agertu duen gertutasun eta atxikimenduagatik ere, 2019ko San Bartolome jaietan omenaldia egin zioten Elgoibarko Udalak eta Jubilatuen Biltokiak. Eta hil ondorenean ere, haren aldeko hitz onak izan dituzte Elgoibarko jubilatuek. Urte guzti hauetan elkarteari emandako babes eskertu diote, bai eta edadetuen artean bizipoza zabaltzeko egindako lana ere, eta doluminak agertu dizkiete haren gertuko eta lagunei.

## Udako euskara eskolak, Debabe Udal Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak euskara ikastaroak eskainiko ditu udan. Ekainaren 28tik uztailearen 23ra bitartean izango dira eskolak. Interesatuak ekainaren 23ra arte dute izena emateko epea. Informazio gehiagorako 943 742 731 telefonora deitu edo [udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus](mailto:udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus) helbide elektronikora idatzi behar da.

## 'The thale' filma gaurko zine forum saioan

Haizea emakume taldeak antolatuta, zine forum saioa egingo dute gaur, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Gaurkoan, *The thale* filma ikusiko dute. 2012ko film norvegiarra da. Krimenen hondakin eta eszena-organoak erretiratzeko espezializatutako garbiketa enpresa batean egiten du lan Leok. Bere laguntzaileak lanera ezingo duela joan esaten dionean, Elvis lagunari eskatuko dio laguntza. Enkargu batek basoaren erdian dagoen txabola bakartu batera eramango ditu, eta han, emakume gazte bat aurkituko dute, biluzik eta isatsarekin. Portaera basatia dauka, eta badirodi ez dela bere espezieko bakarra. 19:00etan hasiko da emanaldia, eta Loredi Sailegik dinamizatuko du filmosteko saioa.

## Unax Ansola txapeldunorde aurreko txapelketako finalean

Ligaxkan puntu gehien eskuratu zuten dantzariak Gazte Mailako Gipuzkoako Aurreko Txapelketa Nagusiko finala jokatu zuten asteburuan Errenteriko Niessen aretoan, tartean Elaia Etxaniz eta Unax Ansola elgoibartarrek. A sailean (2011tik 2013ra bitartean jaiotakoak) sei dantzari hartu zuten parte. *Txakolin* eta *Agurra* dantzatu zituzten sail honetako partaideak, eta Inazio Bereziartua eskolako ordezkari Unax Ansolak bigarren egin zuen, 76,30 punturekin. Lezoz jokatu zen ligaxkako azken saioan ere bigarren postua eskuratu zuen Ansolak, eta Inazio Bereziartua dantza taldeko arduradunek esan dutenez, sasoi betean amaitu du aurreko txapelketen denboraldia. B sailean (2008-2010), hamabi parte hartzaile izan ziren eta *Erribera* eta *Zortzikoa* dantzatu zituzten. Adin tarte honetan hartu zuten parte Elaia Etxaniz elgoibartarrak. Inazio Bereziartuako irakasleek aitortu dute finalean besteetan baino urduiago aritu zirela dantzan umeak, baina hori ere irakaspen ona dela nabarmendu dute. D sailekoak (2006 eta 2007 urtean jaiotakoak) Legazpin dute final nagusia, ekainaren 19an, eta egun horretan Malen Galarraga, Jon Etxeberria eta Eneko Etxaniz izango dira Elgoibarko ordezkariak.





## Bete egin zen Herriko Antzokia 'Larrugorritan' telesailaren aurkezpenean



Eguaztenean eman zuten Jone Arriolak zuzendutako *Larrugorritan* telesailaren aurkezpen kapituloa Herriko Antzokian. 20 minutuko aurkezpen atala izan zen, eta ikusleek pertsonaiekin lehenengo harremana egiteko aukera izan zuten. Gehiagorako gogoz gelditu ziren ikusleak. Kapituluaren ostean, mahai-inguru bat egin zuten, Garazi Ayesta kazetari elgoibartarrak gidatuta: Hizlariak, berriz, Jone Arriola bera eta lau aktore protagonista izan ziren: Unai Arrieta (Niko), Sara Nieto (Ali), Alazne Astorga (Lara) eta Aiora Enparantza (Mai). Edukiera mugatua dauka une honetan Herriko Antzokiak, eta bete egin zen. Arriolak berak eskerrak eman zizkien bertaratu ziren herritarrei.

## Biraka taldeko Mendaroko dantzariak Eibarko Coliseo antzokian egin dute urte amaierako jaialdia



Biraka taldeko Mendaroko dantzariak Eibarko dantzariekin batera egin zuten joan zen barikuan ikasturte amaierako dantzaldia, Eibarko Coliseo antzokian. Urte "zaila" izan dutela adierazi du Mendaroko irakasleak, pandemiaren ondorioz ezin izan direlako entseatzeko elkartu. Bakoitzak bere aldetik egin ditu entseguak etxean, eta azken hiru hilabeteetan bakarrik entseatu ahal izan dute elkarrekin. "Pozik" geratu dira emanaldiarekin, eta arduradunak adierazi du "meritu handia" izan dutela "urte gogor" honetan ere maila "ona" eman dutelako dantzariak.

## Udaldiari buruzko guraso bilera, eguaztenean

Atxutxiamaikaren eta Udalekuaren Udaldia ekainaren 21ean hasiko da, eta programazioari buruzko zehaztapenak emateko guraso-bilera egingo dute datorren eguaztenean Elgoibarren, (ekainak 16). Euskarazko bilera 17:00etan izango da, eta gaztelaniazkoa, 18:00etan. Covid-19a dela-eta, aurten ezingo dute aurrez aurreko bilerarik egin, beraz, *online* egingo dute. Antolatzaileek bezperan bidaliko diete gurasoei bileran parte hartu ahal izateko lotura.

## Musika Eskolakoek rock kontzertua gaur, Maalan

Inazio Bereziartua Musika Eskola kurtso amaierako jaialdian murgilduta dago. Joan zen barikuan talde finkoen emanaldia izan zen Herriko Antzokian, eta gaur, rock kontzertua eskainiko dute Maalako parkean. Besteak beste, Gazteen Bandak, Big Bandak eta Rock taldeak hartuko dute parte. 19:00etan hasiko da kontzertua. Astelehen, berriz, hilaren 14an, ikasturte amaierako kontzertua egingo dute musika eskolako auditoriumean.

## Googaz 3.0 ekimeneko Gipuzkoako Kopa bihar, Kalegoen plazan

Googaz 3.0 ekimenaren Gipuzkoako Kopa jokatu dute bihar, zapatua, Elgoibarren. Udalerrri bakoitzeko gazte ordezkari-taldeak proiektuak garatu beharko ditu, herriko merkataritzaren esparruan izango dituzten erronkei irtenbidea emateko. Kalegoen Plazan dute hitzordua, 10:00etan. Googaz gazteek gazteentzat sortutako mugimendua da, erronka sozialen partaide izan daitezen. Elgoibarko Udaleko Sustapen Ekonomiko eta Gazteria sailek sustatzen dute herri mailan.

## Eneko Ortegak bigarren egin du Gipuzkoako erlojupeko txapelketan

Sasoiko dabilta Elgoibarko Laboral Kutxako txirrindulari gazteak. Eneko Ortega, esaterako, birritan igo zen podiumera aurreko asteburuan Zumaian eta Bergaran jokatuako kadete mailako probetan. Zumaiaiko Saria lasterketa jokatu zuten zapatuan, 55 kilometrokoa, eta bigarren sailkatu zen Ortega, irabazlearengandik segundu batera. La lasterketa osoan ihes eginda ibili zen elgoibartarra, 40 bat kilometroan bai, baina hamar kilometroren faltan harrapatu zuen Raul Ostiz Gama-Muruzabal-Erro y Eugui taldeko txirrindulariak eta aurrea hartu zion. Domekan, berriaz, Gipuzkoako Banakako Erlojupeko Txapelketa jokatu zuten Bergaran. 90 txirrindularik parte hartu zuten, eta 7,2 kilometroko ibilbidea osatu zuten, bata bestearengandik hogeita hamar segundura irtenda. Zatika Goifiber taldeko Gari Ugarte izan zen azkarrena, 10:46ko denborarekin. Haren atzetik sailkatu zen Ortega, bederatzi segundura. Bestetik, Beñat Fernandez jubeniletan ari da lehiatzen, Elgoibarko Laboral Kutxa taldearekin, eta asteon Gipuzkoako hautatzaileak deitu du asteburuan Frantziara joateko. Bocage et de l'Erneeko Tourra jokatu dute bihar eta etzim eta hantxe izango da txirrindulari mendarorarra.



Arg.: Candido Diaz

## Tenerife Bluetrail mendi lasterketa 10 orduz azpitik bukatu zuen Juanan Martinek

Tenerife Bluetrail mendiko ultrail lasterketan lehiatu zen Juanan Martin, joan den ekainaren 5ean. Vilaflorretik abiatu eta Puerto de La Cruzko Martinez aintziran amaitzen zen 74 kilometroko proban 124. postua lortu zuen elgoibartarrak, 9:53:31ko denbora eginda. Ia bostehun saltakari batu ziren irteeran eta ia erdiek laga zuten bertan behera. Maila handiko mendi lasterkariak batu dira aurten, Espainiako Txapelketa jokoan baitzegoen, FEDME Mendiko eta Eskaladako Espainiako Federazioak antolatutakoa. Martinentzat korritzen zuen estreinako ultratrail distantziako proba zen eta gustura gelditu da esperientziarekin. Lasterketa oso berezia dela nabarmendu du, eta paisaia horrenbeste aldatzen dene eta lasterketa bat baino gehiago hartzen dituela bere baitan.

## Herri kirolen eguna, bihar

Herri kirolen eguna izango dute bihar, hilaren 12an, Mendaron. Udalak antolatu du, Ernesto Ezpeleta Bihurriekin elkarlanean eta Arno Guraso Elkartearen laguntzarekin. HH5etik LH6ra arteko umeei zuzendutako eguna izango da, eta haurrek herri kirol ezberdinak probatzeko aukera izango dute, frontoian, 11:00etatik aurrera: txinga eroatea, sokatira, zaku lasterketak, harri jasotzea... Bukaeran, parte hartzen duten ikasle guztiek pintxo eta edari bana jasoko dute. Goizari azkena emateko, berriaz, Hodei Ezpeleta herriko aizkolari gaztearen erakustaldiaz gozatzeko aukera izango dute haurrek.



## Itzuliko etapa bat Mendaron hasi edo bukatzeari buruzko bilera

Mendaroko Udalak jakitera eman duenez, Euskal Herriko Itzuliko txirrindulari probako antolatzaileekin hartuemanetan dihardute, eta Itzuliko etapa bat Mendaron hasi edo bukatzeko aukera dute mahai gainean. Mendaro Itzuliaren etapa bateko irteera edo helmuga izatearena "hurrengo urteei begira" eginiko proposamena edo aukera dela zehaztu du Mendaroko Udalak, eta gai honi buruz hitz egiteko eta azalpenak emateko bilera irekia antolatu dute gaurko. 18:00etan izango da bilera San Agustin kulturgunean. Julian Eraso Euskal Herriko Itzuliko zuzendariak emango ditu azalpenak.



## Elene Beristainek Realak antolatu dituen teknifikazio entrenamenduetan parte hartuko du

**C**lub Deportivo Elgoibarrek Realarekin du akordioa sinatuta eta urtero deitzen dituzte nabarmentzen diren jokalariek gaztetxoak Realarekin entrenatzera joateko. Oraingoan, estreinakoz deitu dute taldeko neska bat, infantilaren taldean diharduen Elene Beristain, hain zuzen ere. Harro egoteko moduko berria dela adierazi dute taldeko arduradunek. Teknifikazio jardunaldi horietan jokalariek Realeko emakumezkoen futboleko teknikoekin lan egiten dute. Helburua da Realaren metodologia eta Zubietako instalazioak gertutik ezagutzeko.

### Futbol Campusa, bihar

C.D. Elgoibarrek neska futbolera erakartzeko Futbol Campusa antolatu du. Bihar, hilak 12, egingo dute, eta doakoa izango da. Zehaztu dutenez, 9 eta 14 urte bitarteko neskaentzako futbol campusa izango da, eta 10:30etik 12:30era bitartean egingo dute, Mintxetan. Interesatuak Kaia tabernan (619 158 774) eman behar dute izena. Era berean, zabalik dago hurrengo denboraldiko Futbol Eskolan izena emateko epea. 2011, 2012 eta 2013. urteetan jaiotako neska-mutilei zuzenduta dago izenematea. Hori bai, ohartarazi dute C.D. Elgoibarrek duen APP aplikaziotik egin behar dela izenematea, derrigor. Informazio gehiago behar izanez gero, 943 741 949 da bulegoko telefono zenbakia, eta [cdekirolarlorla@gmail.com](mailto:cdekirolarlorla@gmail.com) helbide elektronikoa. Futbol Eskolako entrenamenduak asteazkenetan izaten dira. Azkenik C.D. Elgoibarrek urteko batzar nagusian parte hartzea deitu ditu bazkideak. Ekainaren 25ean, barikua, izango da batzarra.



## TransPeneda-Gêres 55 kilometroko mendi lasterketa irabazi du Maite Maiorak Portugalen



Maite Maiorak begiz jota ditu uztailearen 9tik 11ra bitartean Lleidako Pirinioetan jokatu diren munduko skyrunning txapelketak. Bere prestaketaren barruan, TransPeneda-Gêres mendi lasterketan hartu zuen parte, ekainaren 5ean, Portugalen. Munduko trail lasterkari onenarikoa den Carlos Sá portugaldarrak antolatutako proba 'Lau gazteluen lasterketa' moduan ere ezaguna da, eta TransPeneda-Gêres parke nazionalen barruan jokatzen da, paraje ikusgarrietan. Maiorak 55 kilometroko proban hartu zuen parte eta emakumezkoetan azkarrena izateaz gainera, sailkapen nagusiko bigarren postua eskuratu zuen, 6:15:18ko denbora eginda. Buff Epic Trail Munduko txapelketa gertu ikusten du mendaroiak eta Portugalgoa "test ona" izan zela adierazi du. Orain, Espainiako Federazioaren deia zain dago, Munduko txapelketa jokatzeko deialdian sartuko duten jakiteko.

## Senior eta junior mailako saskibaloia taldeak izango ditu Elgoibarrek

Senior mailako taldeaz gainera, estreinakoz junior mailakoa (2004an eta 2005ean jaiotakoak) ere edukiko du datorren denboraldian Elgoibarko Saskibaloia Taldeak. Batera zein bestera batu nahi dutenek atea zabalik dutela azaldu du Carlos Lahoze. Hilabete honetan, martitzenetan eta eguenetan egingo dituzte entrenamenduak, 19:30ean, Olai-zaga kiroldegian. Taldera batzeko interesa dutenek entrenamenduetara agertzearekin nahikoa dela esan du Lahoze edo honako telefono zenbakira deituta: 618 259 339. Era berean, ez dute baztertzen beste kategoriaren batean talderen bat osatzeko aukera, eta izena ematera animatu dituzte herriko neska-mutillak. Izan ere, Saskibaloia Eskola bat sortzea gustatuko litzaieke. Asmo honen berri ikastetxetan ere eman nahi dutela gaineratu dute.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Goizez, orduka.  
☎ 605 527 278

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan jarduteko prest nago.  
☎ 643 071 900

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia eta titulazioa ditut.  
☎ 662 460 266

Etxeko lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 655 094 780

Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko, etxeko langile moduan.  
☎ 643 584 198

Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.  
☎ 685 731 164

Emakume euskalduna, adinekoak zaintzeko prest. Erizain laguntzaile titulua daukat. Esperientzia eta erreferentzia onak.  
☎ 660 511 781

Neska euskalduna eskaintzen da ekainetik abuztura haurrak zaintzeko. LH-n klase partikularrak ere emango nituzke (Elgoibarren edo Mendaron). Berehala hasteko aukera, eta ordutegi malgua.  
☎ 630 915 031

**PARTIKULARRAK.....**  
Skate klaseak ematen ditut, hasiberrientzat eta hobetu nahi dutenentzat.  
☎ 672 183 313 (Danel Iriondo)

**IBILGAILUAK.....**  
Lambretta etxeko motoa salgai. 200cc. Paperak legez, eta oso egoera onean.  
☎ 686 847 166

**ETXEBIZITZA.....**  
Etxe bat hartuko nuke alokairuan.  
☎ 660 458 756

**BESTELAKOAK.....**  
Erlojua galdu dut Herriko Antzokitik Lerun alderako bidean. Pulsera beltza dauka eta digitala da. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala, mesedez.  
☎ 676 393 351

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.  
Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.  
Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Auzakari Kontakaria



**ROSA Ma PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Gure etxebizitza komunitatean ur-kontagailu komun bakarra daukagu guztiontzat, eta presidenteak ur-kontagailu individualak jartzeko agindu dio enpresa bati, gainerako etxe-jabeekin hitzik egin gabe. Bizilagun batzuk ez gaude ados egin duenarekin. Zer egin dezakegu?**

Komunitatearen intereseko gai guztiak etxe-jabeen batzordean aztertu eta adostu behar dira. Bilerak egin beharko dira, eta deitzaileak gai-ordenan jaso beharko du proposamen hori. Hartutako erabakia balekoa izan dadin, etxe-jabe guztien 3/5ek onartu beharko dute, batzarrean egon edo ez. Gehiengo hori lortzen bada, bizilagun guztiak behartuta egongo dira hartutako erabaki hori onartzera. Etxe-jabeen bizkar hartutako erabakiengatik erantzun beharko du presidenteak.

**Gomendioa: batzarrera bizilagun guztiak agertzen ez bada eta ez bada legez eskatzen den gehiengo hori lortzen, aktan jaso beharko da, eta akta bilerara agertu ez diren bizilagun guztiei bidali beharko zaie. Horiek 30 eguneko epea izango dute aktan jasotakoaren gainean iritziren bat emateko. Ezer esaten ez badute, hartutako erabakiarekin gustura daudela interpretatuko da.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2






## ZORIONAK


Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Unax!** Zein handi eta jator, maittia! Segi zeran modukua izaten, bihotza. Familia osoaren eta, batez ere, Aratzen partez.



Zorionak, **Maddi!** Primeran pasatu zure lehen urtebetetze eguna! Muxu potolo bat familiakoen partez.



Dozena bat urte, **Endi!** Zorionak, txapeldun! Primeran ospatuko dugu!



Zorionak, **Noa!** Azkenean 9 urte! Ondo pasa eguna. Etxekoan partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### SAMSUNG UE32T5305CK TELEBISTA



**279 €**

• SMART TV • FULL HD 1080 • HDR 10

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

**943 743 704**  
**688 769 657**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR



# UDAKO TAILERRAK

Sormena landuko dugu teknika  
desberdinak erabiltzen

LH3-LH6ko umeentzat

Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik - 12:30era

- 1.txanda; ekainak 21 - 25
- 2.txanda; ekainak 28 - uztailak 2
- 3.txanda; uztailak 5 - 9
- 4.txanda; uztailak 12 - 16

Izen-emateak  
ekainak 16ra arte

**666 557 538**

30 €/astea. Aste bat baino gehiago hartuz gero, %10eko deskontua

EGUR ARTE TAILERRA MERKATU PLAZAKO 1.SOLARIUAN [egurarte@gmail.com](mailto:egurarte@gmail.com) ELGOIBAR

Elgoibarko Udaberren laguntzarekin



## 11 BARIKUA

**19:00** Zine foruma: 'The tale'. Haizea emakume taldeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du.

## 12 ZAPATUA

**10:00** Googaz 3.0 Gipuzkoako Kopa. Kalegoen plazan.

**11:00** Herri Kirol Eguna. Mendaroko frontoian.

**19:00** Kontzertua: 'Begiekin entzutekoak' zikloaren barruan, Munlet. Mendaroko San Agustín kulturgunean. Sarrerak Puxikan eta Uztargin daude salgai.

## 13 DOMEKA

**11:30** Meza berezia. Paduako San Antonioren eguna dela-eta, meza berezia egingo dute San Bartolome Parrokian. Urruzunoko eta Aiastiarren Eguneko patroia da Padua eta haren oroimenezko mezak izan ohi dira auzo horietan. Aurten San Bartolome parrokian egingo dute meza.

## 16 EGUAZTENA

**19:00** Irakurraldi musikatua: Etorkizuna irudikatzen fabulak. 'Kintsugi'. Harkaitz Cano eta Maite Larburu. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

## 17 EGUENA

**19:00** Ameikutz musika eskolako jaialdia. Garagartzako plazan. Gonbidapena beharrezkoa izango da.

**22:00** Kontzertua: Sara Zozaya. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 5€.

## 18 BARIKUA

**18:30** Egur arte tailerreko ikasleen lanekin egindako erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**19:00** Biraka dantza taldearen kurtsu bukaerako jaialdia. Herriko Antzokian.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

**Egunez: 09:00-22:00**

**Iluntzean: 20:00-22:00**

**Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)**

11 BARIKUA	12 ZAPATUA	13 DOMEKA	14 ASTELEHENA	15 MARTITZENA	16 EGUAZTENA	17 EGUENA	18 BARIKUA
Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>
Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384


**Urte guztian, gauz: 22:00-09:00**  
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)  
943 201 912



### I. URTEURRENA

## Ricardo Torquemada Docampo

2020ko maiatzaren 30ean hil zen, 72 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainaren 13an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztatik eskerrak.



### I. URTEURRENA

## M<sup>a</sup> Luisa Abarrategui Leaniz-Barrutia

2020ko ekainaren 10ean hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainaren 13an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztatik eskerrak.







*Enrique Eguren*  
(1927-2021)



**Hurbila, prestua...  
Zu maitatzea erraza izan da.  
Ahaztea, aldiz, ezinezkoa.**





# 10 Kia egunak itzuli dira.


Ekainaren 10etik 21era.



Movement that inspires

Kanpora irten nahi bazenuen, orain irten zaitezke. Eta horrez gain, autoa estreinatu nahi bazenuen, orain aukera ona duzu horretarako. Badatoz 10 Kia egunak, eskaintza bereziekin aukera guztietan. Auto elektrifikatu bat duzu buruan? Aprobetxatu MOVES III plana.

**KIA**  
NAIA CAR

 Apalategi, 1 EIBAR  
 943 707 033 

WLTP emisio konbinatuak (g/km): 118-203. WLTP kontsumo konbinatua (L/100KM): 4,8-9. Kontsultatu sustapeneren baldintzak eta berekizunak [www.kia.com](http://www.kia.com) helbidean. Eskaintza honek 2021/06/21era arte balio du, Peninsulako, Balear Uharteetako, Ceutako eta Melillako kontzesionarioen sare osorako.



**10DíasKia**